

JOXERRA GARZIA GARMENDIA

EUSKARAREN ERABILERAREN GAKOAK EGOERA INFORMAZIOAN ETA GAZTEEN ARTEAN

AZTERGAIA ZEDARRITZEN

Inoiz ere izan ez duen presentzia du gizartean euskarak, baina euskara maila guztietara hedatzeak kostua izan du, eta ez nolana hiko. Handia ez ezik, orokorra izan da kostua: alor gehienetako hiztun gehienei erasan die. Pello Salabururen¹ diagnostikoa da (neuk halamoduz moldatua), baina adostasun aski zabala du euskararen egoeraz hausnarketak plazaratu dituzten egileen artean.

Diagnostikoaren lehen zatia positiboa da: antolatu diren hizkuntza politikei eta ekimenei esker, izugarri hedatu da euskara, alor eta hiztun berri mordo irabazi ditu azken urteotan (ganorazko politikak ezarri eta garatu diren lurraldeetan, behintzat). Lan eskerga eta eskergarria egin da, eta jarraitu beharra dago horretan oraindik ere.

1. SALABURU, Pello (2002), *Euskararen etxea*, Irun, Alberdania.

Erabilera, ordea, ez da ezagutzaren neurri berean hazi, ezta hurrik eman ere. Gaur egun, kezka larria sortarazten du ezagutzaren eta erabilerearen arteko arrakala horrek euskalgintzako eragile, elkarte eta erakundeen artean, eta horixe delakoan nago une honetan dugun arazorik handienetakoa (handiena dela ez esatearren).

Gauzak horrela, orain arteko lehentasunak aldatzeko premia aldarrikatzen da euskalgintzako bazter ez gutxiatik. Eginaren meritua ukatu gabe, estrategia eta bide berrien premia aipatzen da sarri, eta hortik “bidegurutzea” edo “errotonda” bezalako kontzeptuak hitzetik hortzera aipatzea, edota euskararen aldeko jarduna “birpentsatu” beharra.

Jardunaldi honen lehen blokeari jarri dioten izena esanguratsua da alde horretatik: “Jakin arren, erabiltzeko mugak eta oztopoak”. Horixe baita, azken batean, kontua: euskaraz dakien jende askok ez duela euskara erabiltzen (edo oso gutxitan baino ez duela erabiltzen).

Hori zergatik gertatzen ote den, horra ustez egin zaigun galdera.

ZERGATIK, ZERGATIK, ZERGATIK...

Arrazoi bat baino gehiago aipatzen da, ezagutzatik erabilerarako kokka hori nondik eta nola sortua den azaltzeko. Besteak beste, honako hauek:

- Sektore sozialen eta administrazioen artean zatiketa eta koordinaziorik eza nabarmena izan da orain arte, eta baita sektoreen euren artean ere. Era guztietako zubiak eraikitzea litzateke irtenbidea (Euskaraldia izan liteke horretan aurrera egi-ten ari garelako adibide).

- Euskararen inguruko diskurtsoak, beren garaian akaso egokiak izan zirenak, baliorik gabe geratu dira. Diskurtsoak aldatu beharra aipatzen da behin eta berriz.

- Orain arteko konpromiso dinamikak bazter utzi, eta lorpen dinamiketara jo behar da, entzun eta irakurtzen dudanez.

- Erramun Osak dio, berriki argitaratu duen artikulu batean², “hezkuntzari gehiegi eskatzen” diogula. Hori dela eta, eskolatik kanpo euskaraz aritzeko aukera gutxi dutela dio Osak, eta hori konponbidean jartzeko honako hiru bide hauek aipatzen ditu:

- Euskarazko aisialdia orokortu.
- Lan munduan toki duina eman euskarari.
- Migratzaileak aukeratzat hartu, ez mehatxutzat.

Soziolinguistika kontuetan ez-jakin samarra naiz, baina aipatutako ikuspegi eta diagnostiko horiekiko sentipen kontrajarriak ditut:

- Batetik, ziur nago ganorazko arrazoi eta argudioak direla ia denak.

- Bestetik, susmoa dut ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala (amildegia) azaltzeko ez direla aski, badela hor nahitaez aintzat hartu beharreko beste faktore bat.

KALITATEKO BENTA

Euskararen kalitatea da arestian aipatu dudan beste faktore hori, eta guztiz funtsezkoa deritzot, batez ere, gazteen munduari begira. Sarri, ordea, erabileraren ekuaziotik kanpo utzi ohi da kalitatearena, elkarrekin zerikusirik ez duten bi

arazo guztiz desberdin balira bezala: batetik euskararen kalitate eskasarena dugu, eta bestetik, erabileraren desertzioa.

Guztiz okerra da, nire aburuz, ikuspegi hori, kalitatea eta erabilera eskutik hartuta doaz eta. Aurrera baino lehen, hala ere, pare bat ohar “kalitate” kontzeptuaz. Izan ere, “kalitate” hitzak komeni ez diren eta uxatzen zailak diren konnotazioak ditu. Hitz kutsatu eta nahasgarria da, baina, hoberik ezean, horixe erabiliko dugu³. Ez, ordea, argibide gisako ohar pare bat egin gabe:

- Kalitatea hiztunaren ikuspegitik ulertu behar da. Ez hizkuntzarenetik.

- Kontu hauetan, hiztunaren premiei eman behar zaie beti lehentasuna, ez hizkuntzaren bera- ren ustezko bikaintasun gramatikalari.

- “Euskararen kalitatea” txostenean genion bezala, zuzen-jatortasunak, orain arte erabateko lehentasuna izan dutenak bigarren maila batean utzi, eta egokitasunaren zerbitzura jarri behar dira. Hala, ekintza, ekimen eta hizkuntz politika guztiak egokitasunaren ikuspegitik birpentsatu eta horren arabera birmoldatu behar genituzke.

- Labor asko azal daiteke zer den, hizkuntza kontuetan, egokia izatea: hiztunari baliagarri zaiona, horixe da, eta horixe baino ez, egokia (bego hori oraingoz horrela).

HIZKUNTZA ETA AIZKORA, BETI ZORROTZ

Hizkuntzaren kalitatea eta aizkora batena irizpide berberarekin neurtu behar dira. Ez da nik esana, Koldo Mitxelena handiaren bermea du kalitatearen ikuspegi horrek⁴ (jardunaldi honen lelotzat ageri den aipuaren ostean dator konparazioa):

“Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik

3. Nik neuk ere badut hitzaren kutsatze horretan neure erru puska, “Euskararen kalitatea” txostenaren egile naizen aldetik, Kike Amonarriz eta Andoni Egañarekin batera. Nolanahi ere, eta hitzak hitz, txosten horretan definitzen den adieran erabiliko dut nik hemen “kalitate” hitza. (Ikus: EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004), *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, www.euskara.euskadi.eus/.../7041/.../euskararen_kalitatea_eu.pdf).

4. Mitxelena, Koldo (1972), *Idazlan hautatuak*, (Patxi Altunak apailaturiko argitalpena), Bilbo, Mensajero, 213. or. (azpimarra nirea da).

2. OSA, Erramun, *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian, 2018ko uztailaren 10ean.

da ona haizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta haizkora amutsa, berriz, txarra”.

Ebakitzen badu, ona da aizkora; ebakitzen ez badu, txarra, nahiz kirten landu ezinago polita izan. Hizkuntzarekin berdin. Dotore izan zein ez, ebaki dezala, hori da printzipala.

- Horrela ulertuta, kalitatezko euskarari “euskara egokia” deituko diogu (on-txar biko bazter utzita), “bere xederako egokia” dena baita euskara egokia.

- Hizkuntza kontuetan, kalitatea eta egokitasuna sinonimoak dira (edo behar lukete izan).

Hiztunari axola zaizkion kontuetan lagungarri izatea. Horixe da euskarari (eta edozein hizkuntzari) eskatu behar zaion ebakitze-modua. Zertan lagungarri, ordea? Nagusiki, honako zeregin eta egoera hauetan:

- Inor txunditu, lasaitu, poztu, kontsolatu, zirikatu, limurtu, gogaitu, gogatu, bairatu, liluratu, nazkatu, haserrarazi, animatu, maitemindu, erakarri, uxatu, mindu, iraindu, penatu, damuarazi, tristatu, barre eginarazi, gozatzeko...
- Norbera nor eta bera izateko, barrua lasaitzeko...
- Solaskidearekiko (eta gizatalde jakin batekiko) harremana islatu/eraikitzeko
- Kontu jasoetan (fisika, filosofia, matematiketan...) aise moldatzeko ere bai, jakina, baina ez horretarako bakarrik.

Kontu eta xede horietarako balio duen euskara da euskara egokia, kalitatezkoa. Bistan denez, egoera informaletan zertu beharreko kontuak dira gehien-gehienak. Gaurko gazteak, ordea, euskara jasoaren esparruan moldatzen dira eroso samar euskaraz: hortik kanpo, benetan axola duten gauzetan, euskara motz geratzen zaie, kamuts.

Izan ere, hiztuna, izadiaren igeltserua bezala, ez baita batere tontua. Ematen diogun tresna baliagarri bazaio, erabiliko du, jakina, baina egoera batean edo xede baterako balio ez badio, ez du erabiliko, nahiz eta:

- diskurtsoen bidez jarrera oso positiboa izan, edo
- erabiltzeko ezinago motibatua egon.

Aisialdian, lanean eta abarretan euskaraz aritzeko aukera izango balu ere, alfer-alferrik da: bere premiak asetzeko balio ez badio, ez euskara erabiliko, orain ez bezala esparru horietan horretarako giro balitz ere. Horrexegatik nioen kanpoko

faktoreekin soilik ez dela ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakalarena esplikatzeko.

INFORMALAGO ETA ZAILAGO

Erabileraren esparru zabalean, guri “egoera informalak” eta “gazteak” egokitu zaizkigu (azken hori nire kasuan oximoron nabarmena izan arren).

Gazte gehienen kasuan, euskaraz puxkaz aiseago moldatzen dira egoera formaletan, informaletan baino. Ikasi, euskaraz nahiago dute; gozatu, aldiz, erdaraz aiseago, euskaraz nahiago luketen arren: ez da jarrera kontua, gaitasun kontua baizik.

Xabi Payari ikasitako honako eskala hau⁵ erabili izan dut unibertsitateko ikasleekin, oratoriako eskoletan:

1. *Está terminantemente prohibido en este establecimiento el consumo de todo tipo de alimento sólido*
2. *Se ruega no consumir comida en este establecimiento*
3. *Está prohibido el consumo de alimentos*
4. *No está permitido comer aquí*
5. *Por favor, no coman aquí*
6. *Aquí no se puede papear*
7. *Deja de papear*
8. *!Que dejes ya de papear, coño!*

Eskala, bistan da, formalenetik informalerako hurrenkeran dago osatua. Nire ikasleak jatorrak, buru-argiak eta euskaltzaleak ziren gehien-gehienak. Bada, eskalako lehen bost mailakoei aise aurkitzen zioten euskarazko ordain egokia. Seigarrenean, baina, pott egiten zuten, “papear” hori ordezkatzeko moduko ezer aurkitu ezinik D ereduan hornitutako beren erreferentzien biltegian.

Kontua da, ordea, gure bizitzaren zatirik handiena egoera informaletan aritzen garela, eta hor alferrik ez ezik kalterako ere izaten da hizkuntza erregistro (ustez) jasoa (gure hiztun gazte askok duten bakarra, tamalez).

5. Xabi Payak berak jakinarazi didanez, eskala honen jatorrizko bertsoa ingelesezkoa da. Ikus: NEWMARK, Peter (1988), A Textbook of Translation, New York, Prentice Hall, 14. or. < [http://ilts.ir/Content/ilts.ir/Page/142/ContentImage/A%20Textbook%20of%20Translation%20by%20Peter%20Newmark%20\(1\).pdf](http://ilts.ir/Content/ilts.ir/Page/142/ContentImage/A%20Textbook%20of%20Translation%20by%20Peter%20Newmark%20(1).pdf)

ELE BAT, BI ELE

Egoera informaletan zaie gure gazteei euskara eskas. Gaitz larria da, ez katarro txoro bat. Sintomak ageri-agerikoak dira:

- Hondarribian, hango berri dakitenek esaten didatenez, ia ezinezkoa da ikastolan hezitako gazteak kalean euskaraz mintzo atzematea⁶.

- Lekeition, kale-erabilera izugarri jaitsi da azken urteotan, eta desertziorik handiena 25 eta 50 urte bitartekoan artean gertatu omen da: D erduan ikasi dutenen artean, alegia⁷.

- Donostian, Mintzalaguna ekimenean ari diren mintzalagunek “euskaraz biziago aritzeko” baliabide gutxi zutela eta ikastaro bat antolatzeke eskatu zioten Bagera elkarteari (2017ko udazkenean eman nuen ikastaro hori, eta jende dezente geratu zen izena eman eta tokirik gabe).

- Euskaraldia, 2018ko azaro-abenduan garatzekoa den ekimena, estrategikoki interesgarria dela esango nuke, jarreretan eragitea bigarren mailan utzita, zuzenean erabileran eragitea baitu xede. Espero dezagun, beraz, bolondres ugari ematea izena, dela *belarriprest* gisa, dela *ahobizi* moduan. Benetan *ahobizi* izateko, ordea, ez da aski sail horretan izena ematea.

Euskara balitz gure hizkuntza bakarra, kamutsa izanik ere, harekintxe moldatu beharko genuke, noski. Euskal hiztun elebakarrik ez dago, ordea. Gutxien jota bi hizkuntza ezagutzen ditugu hemen denok:

- Bata maite-maitea, baina egoerarik garrantzitsuenetan balio ez diona (euskara).

- Bestea batere maite ez duena, baina primeran ebakitzen duena egoera gehienetan (erdara, gaztelania / frantsesa).

Atera kontu nola jokatu duen hiztun ez batere tontuak!

JOXEAN ARTZE handiaren esaldi ospetsuaren parodia batekin adierazita:

Hizkuntza batek ez badio

hobeto bizitzeko balio,

hiztunak batera esango dizkio

“kaixo!” eta “adiio!”.

6. Egoera horri aurre egiteko, Blagan euskara elkarteak sortu zuten Hondarribian (2016-06-10ean egin zuten elkartearen aurkezpena).

7. Lekeition bertan jakin nituen kontuok, bertako euskara elkarteak, egoeraz kezkatuta, horren inguruko jardunaldi bat antolatu zuenean (2014-02-22). Nirekin batera hizlari, Jon Sarasua eta Fermin Etxegoien aritu ziren.

Gainerako arrazoiak gorabehera, euskararen kalitatea handitzea da erabilera areagotzeko gako nagusietakoa. Horretarako, zuzen-jatortasunetik egokitasunerako jauzia serio hartu eta erabakimenez egin behar genuke. Euskararen aizkora zorrotzu ezean, hiztunek aukeran duten beste hizkuntza erabiliko baitute.

ERABILTZeko ZORROZTU, ERABILIZ ZORROZTU

Aizkora zorrotzeko, euskararen kalitatea hobetzeko, alegia, arrasto batzuk aipatu nahi nituzke. Honela ere formula daiteke galdera hori: Zer egin hiztunak benetan ahobizi izan daitezen, eta ez bakarrik ahozabal edo aho-jario?

Jarraian, gaia inola ere agortzeko asmo izpirik gabe, horri buruzko nire burutazioak azaltzen ahaleginduko naiz. Orokorrenetik hasita, zera esango nuke:

- Oro har, euskararen inguruko zer guztietan (politikak, ekimenak, jardunak...) egokitasuna behar genuke irizpide nagusi, eta zuzen-jatortasunak haren zerbitzura ipini, beti ere beti.

- Esaten (eta onartzen) erraza. Gauzatzen zaila.

Ohar zaitzete sorgin-dantza halako bat osatzen dutela erabilerak eta kalitateak:

- Batetik, kalitateak (hiztunarentzat baliagarri izateak) dakar erabilera.

- Kalitatea, ordea, erabilerak ematen du
 - Erabiltzen ez denak, indarririk ez...
 - Indarririk ez duena, ez du inork erabili nahi...

- Nola esan daiteke?-tik Nola esaten da?-ra
 - Nori dagokio sorgin-gurpil hori geratzea?
 - Hiritar arruntei, ala euskararen profesionalen?

Galdera erretorikoa da, jakina. Garbi dago horretan erantzukizun handiagoa dagokiela euskaratik bizi diren profesionalen hiztun arruntei baino.

Hedabideak eta hezkuntza sistema, horiek dira euskara zorrotzeko ditugun tresnarik eraginkorrenak (behar bezala erabiliz gero, behintzat). Biak ala biak, hedabideak eta hezkuntza sistema, geure premietara egokitu behar genituzke, Espainian eta Frantzia egiten dutena besterik gabe konpaktu ordez, konplexurik gabe.

EUSKARA DAKITENEK EUSKARA ERABILTZEA NAHI BADUGU, EUSKARA ZORROZTU BEHARRA DAUKAGU

Gainerako guztietan ere (ekimen, egitasmo eta abarretan), egokitasuna xede beti. Xede argirik gabe ez genuke sekula jardun behar (tokatzen delako, kupo a betetze aldera....). Asko dago horrelakorik bazterretan, tamalez.

Baldar (eta alferrik) jardutearen adibide bat aipatuko dut, Emakundek egindako publizitate kanpaina batekoa. Gaztelaniazko afixan (jatorrizkoan, alegia, hori baita publizitate agentzien prozedura⁸), eslogana “Echarme una mano no es suficiente” dio. Gustatu zein ez, garbi dago esloganaren eta irudi manipulatuaren arteko jokoari zor diola iragarkiak bere indarra. Euskarazkoan, ordea, ez da horrelakorik ageri. Ziur asko, gaztelaniazkoa sortu eta gero, euskarazko bertsioa egiten hasita, eztabaida sortuko zen, eta “Niri esku bat botatzea ez da aski” bezalako eslogan “ez-jatorrak” baztertzea erabakiko zuten. Horretarako beti dago, agentzian ez bada iragarlearenean, hizkuntz komisarioren bat. Ondorioa: euskarazko afixakoa euskara zuzen eta jatorra da. Ez, ordea, euskarazko publizitatea, euskarazko testu arrunta baizik.

Horrelakoen aurrean (eta asko dira, sine-tsidazue), Txiritaren bertso amaiera hura dator kit beti burura: “Baneukake nun enplegatua”. Horrelakoak egiten dirurik ez gastatzeko, alegia, badugu eta atarramendu hobearekin non gastatua ugari.

8. Ikus horretaz: GARAI, Estitxu (2014), “Publizitate elebiduna (gaztelania-euskara): zertze-prozedura, testuen egokitasuna eta iragarkien hautematea” (doktore tesia), Bilbo, EHU.



Euskara dakitenek euskara erabiltzea nahi badugu, euskara zorroztu beharra daukagu, ebatzitzen ez duen aizkora ez baitu inork erabiltzen. Horretarako, mila gauza landu eta egin litezke, bai hedabideetan, bai hezkuntzan bai beste hainbat esparrutan. Nik horietako batzuk aipatu baino ez ditut egingo, adibide gisa, arin bai arin.

EUSKARA ZORROZTEKO HAINBAT BIDE ETA LANGAI

HITANOIA

Informaltasunean trakets moldatzen dira euskal hiztun gazteak:

- Oro har, erregistro bakarra dute, formala, eta hizkera bera darabilte “nagusiekin” eta kidekoekin.

- Hizkuntza guztietako hiztun guztiek sentitzen dute solaskidearekiko duten harreman-mota markatu eta bereizteko premia; inori ez zaio gus-tatzen nagusi eta hierarkian gorago ditugunekin erabiltzen duen hizkera bera erabiltzea kidekoekin.

- Euskarak ez die premia hori asetzeko modurik eskaintzen. Denok dugun beste erdal hizkuntza horrek bai, ordea, eta handik hartzen dituzte gazteek (eta ez hain gazteek) kidekoekin “bestela” hitz egiteko behar dituztenak: *tío, mola mazo, en plan...* WhatsAppean ere berdintsu.

Euskarak, ordea, badu, bere baitan, kide-tasuna markatzeko makro-baliabide bat: hitanoa. Ez da beti hala gertatzen, baina kasu honetan biak ditugu eskura: arazoa eta haren konponbidea.

Kidekoekin “bestela” hitz egiteko modurik naturalena, euskaraz, hitanoa baita. Tamalez, galdua edo ia galdua dago toki askotan, baina lehentasun erabatekoa eman behar genioke hitanoa biziberritu eta sustatzeari. Ez, noski, arau lehor moduan (horretarako hobe dagoen-dagoenean uztea), jolas moduan baizik, zertarako balio duen erakutsi eta sentiaraziz.

Horretarako arau gramatikala lasaitu behar bada, lasaitzearen alde egingo nuke nik (galdere-tan ere onartuz, esaterako). Arau soziala aldatzea, aldiz, zentzugabekeria handia litzateke, nire ustez. Seme-alabek gurasoei hika hitz egitea, esaterako, zilegi da maila pribatuan, baina disparate latza litza-teke Euskal Herri mailako estrategia gisa: nagusie-kin hitz egiteko erabiliz gero ez bailuke balio izango kide-tasuna markatzeko, eta horretan dugu, hain zuzen, gabeziarik larriena.

TRADIZIOA GURTU?

Gaurko gure komunikazio premia askok eta askok, tradizioan dute konponbidea. Horretarako, jakina, tradizioa ezagutu eta aintzat hartu beharra dago. Gurtu ez, e-gurtu egin behar da tradizioa, handik gure gaurko arazoetarako konponbidea atera-rako badugu. E-gurtu: ezagutu, egokitu, erabili...

Gaur egun hezkuntza sistemak ez du tradi-zioaren ezagutza bermatzen:

- Atsotitzak, esaterako, bitxikeria gisa era-biltzen dira, batere erabiltzen diren kasuan: *Zozoak beleari ipurbeltz* eta dozena erdi bat gehiago buruz ikasi, eta kito. Lerroburu, izenburu eta eslogan

ganorazkoak sortzeko eredu izan litezkeela, hori aipatu ere ez...

- Hitz elkarketarekin ere berdin gertatzen da. Lantzekotan, araua lantzen da: noiz batera idatzi behar diren bi osagaiak, noiz bereiz eta noiz marrarekin. Irain ganorazkoak osatzeko sistema dela aipatu? Bai zera, hori ez omen da eskolaren egitekoa (Espainian eta Frantzian ez delako, jakina, baina haien premiak eta gureak guztiz bestelakoak dira...). Hitzunek, ordea, beti izango dute horre-lakoak erabiltzeko premia. Euskaraz ezin badute, badakizue zer egingo duten: erdarara jo, Gaztea (artean Euskadi Gaztea) irratiko entzuleek bidali-tako SMS honetan ikus litekeen moduan:

- Atsaldeon *pitolisto* ta *pitxabrava* atzo eldu zitzaidan Perezan kamista ta babero 1 bezala gertazen zat baña neskai *le qeda d lujo* hoiek die kurbak! agur.

Erdarak (kasu honetan gaztelaniak) badiu euskarak eskas dituen hainbat baliabide (hedadu-rak, hiztun kopuruak eta erabilerak emanak). Baina zer?, eta hitz elkarketan aurea hartzen utzi behar al diogu? Horko “pitolisto” ta “pitxabrava” horiek zer dute, bada, euskarazko hauek ez dutenik?:

- Zakil-zoli, pitilingorri.
- Zakil-abil, alu zalu
- Muxu-merke, larru-merke, zakil-merke, alu-merke

Zertan dira horiek erdarazkoak baino dese-gokiagoak? Galdera hau ere, tamalez, erretorikoa da: erabileran dago koxka. Bide batez esanda, hori da Gaztean ulertu nahi ez dutena: erabili ezean indarrik ez dutela esapideek, baina beste inork baino erantzukizun handiagoa dutela horre-tan. Hala, beraz, nahiago dute SMSetan eta iristen zaizkien erdarazko horiek erabili (esateko garai-nabarmen enfatizatuz, gainera), euskarazkoen aldeko apustua egin ordez. Sistema horrekin, jakina, erdarazkoak gero eta indartsuago izango dira, eta euskarazkoak gero eta ustelago.

Hamaika aldiz esan dut, baina, inork jara-monik egiten ez didanez, esan dezadan berriro: bere kabuz egiten ez duenez, norbaitek eginarazi behar lioke Gazteari apustu hori. Edo niri azaldu, behingoz, zertan nagoen tronpatuta, eta zergatik.

KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAK “ASMOZ ETA YAKITEZ” BALIATU

Baliabide poetiko-erretorikoak, eta, oro har, komunikazio estrategiak ezinbestekoak dira aho-bizi izateko:

- Eskolan, gutxien behar dena lantzen da, kasurik onenean: izena, adibide klasiko bat edo beste... Inor txunditzeko, kontsolatzeko edo asalatzeko martingalak direla ez da, antza, ikasleek jakin beharreko kontua.

- Baliabide poetiko-erretorikoak bakarrik aintzat hartuta ere, 200 baino gehiago horrelako martingala daude katalogatuta, baliagarri bezain gozagarri. Teoria antzuaren kutxan bilduta, alferrik galduta dauzkagu.
- Erdaraz ere ez baitira behar bezala lantzen, aukera polita genuke euskaraz abantaila hartzeko... Horretarako, ordea, estrategia argia behar da aurrena, eta ez-normalak izateko ausardia gero. Eta ez dakit ez ote ditugun biak ere eskas.
- Erregistro imitazioak, distantzia erretorikoak eraikitzea⁹... horra 200 eta gehiago estrategien arteko bi, aise asko erabiltzeko modukoak, eta hasiera-hasieratik etekin ikusgarria ematen dutenak.

EUSKALKIAK

Antza denez, hiztun askori euskara batuak ez die balio erregistro informaletan aritzeko. Hori dela eta, sarri euskalkietara jotzen dute, batzuetan beren inguruko euskalkira, beste batzuetan (gero eta gehiago) hedabideen bitartez “ikasitako” beste euskalkiren batera.

Euskalkiak nahasteak baditu bere arriskuak, eta ez txikiak, baina ez zait iruditzen beti kondena-garria denik. Apeta hutsez ez bada, hiztunak bere premia bat asetzeko jotzen badu euskalkietara, onartu behar genioke jokabide hori. Azken baten, horrela jokatzeko duen hiztunak euskararen baitan bilatu (eta aurkitu) du bere premiaren bat asetzeko modua, eta hori beti izango da hobe, besterik gabe erdarara jotzea baino.

Hala ere, onartu behar da euskalki jakin baten erreferentziarik ez duen euskal hiztun asko dagoela. Bestalde, batzuetan euskalki baten kariatatura, hiruzpalau zertzelada hartu eta halamoduz osatutako mordoilo bat erabiltzen dute hiztunek horretarako, horrenbestez euskalkia erabiltzen ari direlako uste ustelean. Horrelakoetan, batua bizitu orde zena lardaskatzea baino ez da lortzen: batua eta euskalkia, biak.

9. Distantzia erretorikoez zabalago: GARZIA, Joxerra (2008), *Jendaurrean Hizlari. (Ahozko) komunikazio gaitasuna lanteko eskuliburua*, Iruñ, Alberdania, 310-314 orr.

ERABIL DITZAGUN TRESNA ETA BALIABIDE GUZTIAK EUSKARA BEHAR BEZALA ZORROZTEKO

Idazle handiek eta hizlari trebeek argi eta garbi frogatzen dute batuak ez duela erregistro bakarreko mordoiloa zertan izan, badaudela bideak batua malguago eta biziago egiteko. Aukera dagoela, alegia, batuaren baitan erregistro desberdinak landu eta erabiltzeko.

TOKIAN TOKIKO AURKIKUNDEAK NAZIORATU

Euskara bizi-bizirik dagoen lekuetan etengabe sortzen dira esamolde eta esapide indartsu berriak.

Horrela sortutako esapide horiek txokotik zabalera nola ekarri, hori da kontua. Horretan ere, hedabideek (“gureek”, alde z edo moldez gure esku daudenean) dezentez gehiago egin lezakete (eta egin behar lukete), egiten dutena baino.

TRABAK TRABA, GEUREA EGIN BARIK EZ LAGA!

“Erdera ez zen bakarrik kapaz, euskerak lagundu dio”, zioen Txirrita handiak bere bertso harrigarri ugarietako batean.

Gutaz beste hainbeste esateko aukera izan ez dezaten, egin dezagun ganoraz geure esku dagoena, erabil ditzagun tresna eta baliabide guztiak euskara behar bezala zorrozteko.

Konplexurik gabe, ausart eta temati, “asmoz eta yakitez”.

Inguruko handi-mandiak baino hobeak izatera kondenatuta gaude.

Ez da kondena txarra.